


GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai martxoaren 22an

Jenny Holzer. Zera deskribaezina

Babeslea:

Fundación **BBVA**

BBVA Fundazioak ezagutza berrien belaunaldiarekiko eta sormen garaikide indartsuenaren bulkada eta zabalkuntzarekiko duen konpromisoa da erakundearen ikurra, Guggenheim Bilbao Museoarekin dugun loturari dagokionez, haren Babesle Estrategiko izan baikara hasiera-hasieratik.

BBVA Fundazioarentzat benetan pozgarria da gure babesarekin *Jenny Holzer*. *Zera deskribaezina* paregabea antolatzen laguntzea; izan ere, nazioarteko artista kontzeptualik garrantzitsuenetako bati eskainitako erakusketa da. Sortzaile estatubatuarraren obrak kontzeptuak eta hitzak batzen ditu, errealitatea eta, batez ere, gu irensten gaituen errealitate horren inguruan jasotzen ditugun mezuak zalantzan jarriko dituen ekoizpenaren mesedetan.

Guggenheim Bilbao Museoak hartuko duen erakusketak omenaldia egiten dio Holzerren ibilbideari: 1970eko hamarkadaren erdialdeko hastapenetatik, hau da, haren artea New Yorkeko kaleetan nabarmendu eta haren *Truismoek* oinezkoak harritu zituztenetik hasita, lau hamarkadako ibilbidean barrena egiten du. Izan ere, urte horietan, arestiko arteak, poesiak, politikak eta historiak bat egin dute sakontasun intelektual handiko eta helmen plastiko paregabeko proposamenetan; sarritan, hartzen dituzten guneeekin elkarrizketan diharduten instalazioen forma hartzen dute ekoizpen horiek. Erakusketak hartzen duen denbora-tarte zabal horretan, Holzer itzalik handieneko artistarik ezagunenen artean kokatu da mundu mailan, eta hainbat sari eskuratu ditu: adibidez, Veneziako Bienaleko Leone d'Oro 1990ean.

Holzerrek ausarki eta zentzu kritiko handiz heltzen die sarri sakonak gertatzen diren gizarte-gaiei, eta umorea ere baliatzera heltzen da, batzuetan gogortasun paregabea duten mezuak interpreta daitezen errazteko. Benetan atsegingarria zait gure babesarekin halako erakusketa txundigarri eta sakonean parte hartu izana, Jenny Holzerren artearen handitasuna nabarmentzen baitu.

Nire zorionik beroenak eman nahi dizkiet Juan Ignacio Vidarteri eta hark Guggenheim Bilbao Museoa zuzentzen duen lan-talde bikainari. Berebat zoriondu nahi dut Petra Joos komisarioa, halako erakusketa diseinatzeagatik: orainaren gainean dugun ikuspegiari perspektiba eskaintzen dio, eta nazioarteko kultur agendan ezinbesteko geldialdi bilakatuko du Bilbo 2019an.

Carlos Torres Vila
BBVA Fundazioaren presidentea

*Jenny Holzer.
Zera deskribaezina*

- Datak: 2019ko martxoak 22–irailak 9
 - Komisarioa: Petra Joos, Guggenheim Bilbao Museoko arte arduraduna
 - Babeslea: Fundación BBVA
-
- Jenny Holzerren obrak hizkuntza du muina. Testu zuzen eta zorrotzen bidez, giza existentzia ezaugarritzen duten funtsezko elementuei heltzen die artistak: besteak beste, boterea, indarkeria, sinesmena, memoria, maitasuna, sexua eta erailketa.
 - Bilbon, Holzerrek bere ibilbidean zehar argi adierazi dituen gogoeta eta ideiekin egingo dute topo bisitariak, Guggenheimerako bereziki prestatutako instalazio-sorta anitzaren baitan.
 - Artistaren xedea publikoa erakartzea da; horretarako, espazio iradokitzaileak sortzen ditu, ikusleei eskatzen dietenak hainbat gai eztabaidagarriren aurrean duten jarrera zalantzan ipini edo defini dezaten, iheslarien krisi globala, emakumeen aurkako indarkeria eta botere-abusu sistematikoak tarteko.
 - Erakusketa honek berriki sortutako lanak hartzen ditu, hala nola, muntaia robotikoen bidez animatutako errotulu elektronikoak, pinturak eta argi-proiektzioak. Poeta euskaldun, espainiar eta nazioarteko idatziak proiektatuko dira Museoaren fatxadan, ilundu ostean, martxoaren 21etik 30era bitarte gauzatuko diren gau-ekitaldi publikoetan.

Guggenheim Bilbao Museoak *Jenny Holzer. Zera deskribaezina* aurkeztu du, gure garaiko artistarik nabarmenenetako baten lanari eskainitako erakusketa. Fundación BBVA erakundearen babesarekin, erakusketa honek lan berriak hartuko ditu, Museoaren fatxadaren gaineko argi-proiektzioak barne; horiek martxoaren 21 eta 30 artean egongo dira ikusgai gauero.

Holzerren lana Museoaren parte izan da hasiera-hasieratik, *Bilborako instalazioa* (*Installation for Bilbao*, 1997) zirrargarria dela-medio. Atrioan dago lan hori, eta Museoaren inauguraziorako enkargua izan zen; bederatzi zutabe argizatutako osatzen dute, bakoitza 12 metrotik gorakoa. Laztik, kokapen zehatzeko artelan hori osatu du *Arno bikotea* (*Arno Pair*, 2010) lanak, hau da, artistak Museolari oparitutako harrizko banku zizelkatu pareak.

Berrogei urtetik gorako ibilbidean Holzerrek jaulki dituen gogoeta, ideia, argudio eta minak hainbat instalazio desberdinetan aurkeztuko dira, zein bere gizarte dimentsio iradokitzaileaz hornituta. Artistak testua du adierazpide, kamiseta batean, xafla batean, pintura batean nahiz LED errotulu batean idatzita egon. Testua espazio publikoan banatzea bere lanaren berezko ezaugarria da: 1970eko hamarkadan hasi zen New Yorken poster-sail bat itsasten, eta paisaiaren eta arkitekturaren gaineko argi-proiektzio berriagoak egiteraino jarraitu du lanean.

Erakusketa bisitatzen dutenek artistaren praktikaren irismen inguratzailea biziko dute; izan ere, praktika horrek giza existentzia ezaugarritzen duten funtsezko elementuei heltzen die: besteak beste, boterea, indarkeria, sinesmena, memoria, maitasuna, sexua eta erailketa. Lengoaia ausart, zehatz eta zorrotzaren bitartez, etengabe aldatzen ari den publiko zabalarari mintzo zaio haren artea. Holzerren xedea publikoa erakartzea da; horretarako, espazio iradokitzaileak sortzen ditu, erreakzio bat, pentsamendu bat eragiteko: jarrera bat hartzeko gonbita dira gune horiek, eta artista bigarren mailan uzten dute batzuetan.

205 aretoa: *Truismoak*, *Saiakera supiztaileak* eta *Auhenak*

Holzerren *Truismoak*, esaldi bakarreko 250 adierazpenez osatutako zerrenda, 1977 eta 1979 artean idatzi zituen. Aforismo, esakune eta klixeen antzera, jarrera teoriko, filosofiko eta politiko bateraezinen sorta zabala batzen dituzte. Ordena alfabetikoan antolatuta daude *Truismoak*, eta Manhattanen erdiguneko kaleetan zehar itsatsitako poster anonimoetan agertu ziren lehen aldiz; orduetik, beste hainbat euskarritan agertu dira: kamisetak, kapelak, errotulu elektronikoak, harrizko zoruak eta bankuak. Esaldi bakoitzak ideia potentzialki zail eta polemikoak zukutzen ditu, baieztapen itxuraz zuzen-zuzenak ateratzeraino. Ikuspuntu bakar bat ere mesedetu gabe, *Truismoek* sinesmen, ohitura eta egien gizarte-erakuntza aztertzen dute.

Artistaren beraren hitzetan, “kaleko errotulu edo poster batekin, pertsona batek metro batzuk egiteko behar duen denbora-gunea duzu. *Truismoekin*, segundo gutxian funtzionatzen duena eskaintzen dut, edo bloke apur bat luzeagoetan, kontzentratu nahi eta ahal duten pertsonentzako. [...] Gogoan izan behar duzu ikusleak boluntarioak direla. [...] Esaldi batzuk mezu osoak dira, instant bakarrean xurga ditzakezunak, baina norbaitek luzaroago geratu nahi badu, sail oso bat dago hiru segundoko lerro horiek txertatuta dituen, eta hori konplikatuagoa bihurtzen da”.

Saiakera supiztaileak (*Inflammatory Essays*, 1979–82), areto honetan ikusgai horiek ere, koloretako paper gainean inprimatu ziren lehenengo eta, *Truismoen* antzera, New Yorkeko espazio publikoetan itsatsi ziren. Artistak irakurritako manifestu politiko, artistiko, erlijioso eta bestelakoek eragina izan dute sail honetan, eta jatorrian ingelesez inprimatu ziren; bakoitzak 100 hitz ditu, 20 lerrotan banatuta. Edozein manifestutan bezala, saiakera bakoitzaren baitako ahotsa ideologia edo ikuspuntu sendo eta zehatz bati lotua dago, eta tonu bereziki premiatsua darabil. Sail honekin, Holzerrek irakurlea gonbidatzen du hainbat gairen inguruan gogoeta egitera: gizarte eraldaketaren beharra, propagandak publikoa manipulatzeko duen ahalmena eta iraultza laguntzen duten baldintzak.

Poster hauek Bilborako prestatu dira, hormak hartzen dituen antolaketa berriarekin, eta euskarazko, gaztelerazko, frantsesezko eta alemanezko itzulpenak jasotzen dituzte.

Aretoaren barruan, harrizko bi sarkofagok (Ankarako marmol gorriz egina bata, Nubiako granito beltzez bestea) Holzerren *Auhenak* (1989) testuaren zatiak agertzen dituzte. HIESaren epidemiaren gailurrean idatzi zuen *Auhenak*, eta lehen pertsonan ematen du alferrikako heriotzaren berri hizlari ezezagun eta izengabeen ahotsen bidez, emakumeak, gizonak, haurrak eta haurtxo bat tarteko. Breccia Medicea marmolez egindako hirugarren sarkofago berriagoak Anna Świrszczyńska-ren “Martwa Natura” (Natura hila) poemaren atalak ditu; gerraren bortizkeriaren erregistro mingarria da idazki hori, eta Holzerren kezkek eta

materialak urteetan zehar izandako jarraipenaren adierazgarri da, nahiz eta artistaren praktika besteen hitzak barne hartzeraino heldu den.

Harri gainean egindako lanari buruz honakoa dio Holzerrek: “Efimeroa eta gorpuzgabea dena estimatzen dut eta horren esku nago, baita harri sendoen eskuetan ere. Erakusketak aretoetan egiten hasi nintzenean heldu nintzen harrira material gisa. Ez nuen nahi jendea zutik egon zedin nire testuak errotulu elektronikoetan irakurtzeko. Jendea eroso egon zedin nahi nuen, eta begiratzeko denbora hartzea. Bankuak egingo nituela pentsatu nuen, beraz, eta eserlekuan idazkiak jar nitzakeela otu zitzaidan, baita bankuek harrizkoak izan behar zutela ere”.

“Hitzak harrian zizelkatzen direnean, ukitu egin daitezke, eskuarekin irakur daitezke; paperean ez bezala antzeman daitezke. Marmolak eta granitoak denbora harrapatzen dute; errotulu elektronikoek, aldiz, beste modu bateko zeinuak igortzen dituzte. Banku-lerroek itxarongelak, auzi gelak, ospitaleak eta elizak irudikatzen eraman dezakete jendea, onerako edo txarrerako”.

206 aretoa: Marrazkiak, bankuak, errotulu pintatuak eta errotulu elektronikoak

Areto honek hartzen ditu harrizko sei banku, kalko-paper gainean egindako zirriborroen hautaketa bat, eskuz margotutako metalezko errotulu sorta bat eta hiru errotulu elektroniko. Bere testuak aurkeztu eta hedatzeko Holzerrek erabilitako baliabide anitzen adierazgarri da hautaketa: garestia nahiz efimeroa, intelektuala nahiz arrunta erabili du artistak. Testu batzuk ez zaizkie “arteak” irudituko ikusleei hasieran batean, eguneroko bizitzaren esperientziatik ateratako elementuen iradokizunak baino. Holzerren posterren antzera, esmaltearekin eskuz pintatutako errotuluek hizkuntzak espazio publikoan daukan paper eragingarria baliatzen dute. Posterrek ez bezala, ordea, errotulu pintatuek aurkezpenak eta publikoari zuzendutako mezuak dakartzate gogora, hala nola hiri nahiz landako gunetan ipinitako kaleko seinaleak. Lengoia instituzionalizatuaren boterea nabarmentzeko, Holzerrek modu eraginkorrean barreiatzen du bere testua ikusleari kontraesan bat erakutsiz: itxura ofiziala daukan arren, errotulu ofizial batek esan dezakeenaren mezu oso desberdina adierazten du testuak ezustean.

Areto honetan dauden granito beltzeko bankuek Holzerrek harrian egindako lehen lanak ordezkatzeko dituzte. *Haitzaren azpian* (*Under a Rock*, 1986) testuak, esan ezin denari heltzeko saiakeran, politikak giza gorputzean duen eragina aztertzen du, baita oinazearen agerpen eta iraunkortasuna ere. Harrizko bankuak eta LED argiak gogoan hartuta idatzi zuen Holzerrek *Haitzaren azpian*, eta testu elektroniko iheskorra irakurtzearen eta harrian zizelkatutako letrak nork bere eskuaz trazatzearen artean dauden desberdintasunak aztertzeko artistak duen desirari heltzen dio. Bankuen erabilerak, errotulu pintatuek bezala, gogora dakartzio berriro ere ikusleari testua aurkezteko mekanismo instituzionalak; hala nola, enpresetako atariak, museoak eta bestelako gune publiko ugari. Hemen, harrizko banku monumental baina arruntaren baliabide serioaren eta testuaren potentziaren arteko kontrasteak lanaren inpaktua areagotzen du.

Halako bankuak ekoizteko prozesua digital bilakatu aurretik, marrazki bat prestatzen zuen Holzerrek grafitoarekin larrutxeko kalko-paper gainean. Marrazki horietan (areto honetan ikusgai daude asko), testua kontu handiz ipintzen da, eskarmentudun artisauek hori bankuaren harrizko azaleran zizelkatu aurretik.

Bankuak baino hauskor eta itxuraz efimeroagoak dira marrazkiak, eta edertasun bakan eta batzuetan asaldagarria dute artelan beregain gisa aurkezten direnean.

Beren aldetik, errotulu elektronikoek Holzerren bi testu-sail ezagunen atalak hartzen dituzte: *Bizitzen* (*Living*, 1980–82), ohar, ildo eta abisu isilen sorta bat biltzen duena; eta *Biziraupena* (*Survival*, 1983–85), pertsonen beren ingurune politiko, sozial, fisiko edo psikologikoari nola erantzuten dioten auzitan jartzen duen sail ohartarazlea. *Saiakera supiztaileak* ez bezala, *Bizitzen* testuak modu objektiboan idatzita daude, kazetari estiloa baliatuta, eta eguneroko bizitzaren deskribapenetara egokitzen dira. Norbanakoak paisaiak, pertsonak, arauak, itxaropenak, desirak, beldurrak, beste gorputzak eta norbere burua kudeatzeko duen moduaren gaineko iritzia ematen dute. *Biziraupena* sailaren tonua premiazkoagoa da *Bizitzen* sortaren aldean. Lehenengo sail horren baieztapenik ezagunena da akaso “PROTECT ME FROM WHAT I WANT” (“Babes nazazu nahi dudana horretatik”). Errotulu elektronikoetarako berariak idatzitako Holzerren lehen testua da *Biziraupena*. Jatorrian Times Square-ko eta hiriko beste gune batzuetako publizitate-paneletan ipini ziren esaldiak ikusgai: labur eta egokiak ziren, bertatik igarotzen zirenei irisgarri suerta zekizkien.

207 aretoa: Udaberri Arabiarraren promesa gauzatu gabea

Areto honek LED argiekin egindako lan robotiko berri bat aurkezten du: *THERE WAS A WAR* (Gerra bat egon zen). Kokapen zehatzeko instalazioa hau bankuz osatuta dago: batzuk iraulita daude, eta LEDen inguruan zirkulu bat eratzen dute, kaos- eta suntsipen-erakustaldian. Museoaren Bilduma Iraunkorreko banku kurbatuetan zizelkatutako lerroak Holzerren 2001eko *Arno* testukoak dira: elegia antzeko gogoeta egiten du lan horrek oinazearen, intimitatearen eta absentziaren inguruan. Instalazio honetako bankuek *Erlauf* (1995) dute inskribatuta, Austriako bakearen monumentu baterako enkargatutako testua, zeinak gerra tratatzen baitu autorerik gabeko memoria, gertakari, asaldura eta galdera hautsien bilduma gisa.

Haitzaren azpian, *Bizitzen* eta *Biziraupena* sailtako testuak dituzten bankuak ere instalazio honetan daude. *THERE WAS A WAR* lau aldeko errotulu bertikala da, LED argiz osatua eta muntaia robotiko bati esker kulunka egiten duena, aretoaren sabaitik zintzilik. Lan hau egiteko, Holzerrek informazioa bilatu zuen nazioarteko errefuxiatuen krisiaren eta Sirian oraindik ere badirauren gerra zibilaren ondorio humanitario suntsitzaileen inguruan; tartean, Human Rights Watch eta Save the Children erakundeek 2011 eta 2016 artean jasotako 131 pertsonaren lekukotzak baliatu zituen artistak. Assad-en erregimenak atxilotu, preso hartu eta torturatutako manifestari zibilekin eta Siriako armada eta inteligentzia agentzietako desertoreekin izandako elkarrizketek Siriako Udaberri Arabiarraren promesa gauzatu gabearen gaineko ezagutza eskaintzen digute. Haur siriarren eta haien gurasoen baieztapenak ahotsa jartzen diete azken zortzi urteetan haien etxeak utzi, eta orain erronka izugarriei aurre egin behar dieten familiei.

209 aretoa: Sexu-indarkeria

Areto honek LED instalazio robotizatu berri bat hartzen du, *I WOKE UP NAKED* (Biluzik esnatu nintzen), sexu-erasoetatik eta bortxaketetatik bizirik ateratako pertsonen lehen eskuko lekukotzak agertzen dituen. Azalpen horiek ingelesez, gazteleraz eta euskaraz daude, eta boluntarioekin eta irabazi asmorik gabeko erakundeekin izandako elkarrizketetatik eratorritakoak dira; besteak beste, Human Rights Watch, Protect Our Defenders, Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandataritza, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua,

Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak argitaratutako *Voces para ver / Ikusteko ahotsak* testigantza-liburuko euskarazko testuak. Errotulu elektronikoak aretoaren luzera zeharkatzen du erre-sistema baten gainean, batzuetan modu ordenatuan mugituz eta besteetan modu deskontrolatu eta ezustekoan.

I WOKE UP NAKED obra *Purple* (Morea, 2008) lanerantz hedatzen da; azken hori 19 LED errotulu kurbatuko egitura bat da, giza saihestak gogorarazten dituen, eta erakusketa honetan ipiniko da martxan lehen aldiz. *Purple* lanak Holzerren *Lustmord* (Sexu-hilketa, 1993–95) testua du irakurgai, ingelesez eta gazteleraz. Jugoslavia ohian bortxaketa gerra-arma gisa erabili izana du akuilu *Lustmord* testuak, eta plazer sexualagatik egindako eraiketak izendatzeko alemanezko hitzetik datorkio izenburua. Sail honetako testuek sexu-indarkeria jasotzen dute, agertzeko dituen modu anitzetan, eta sexu-enkontru bortitzak nahiz gertakari horien ondorengoak deskribatzen dituzte egile, biktima eta ikusleen perspektibatik.

208 aretoa: Gerraren gehiegikeriak

Areto honetako sabaitik zintzilik dago *SWORN STATEMENT* (*Zinpeko deklarazioa*) artelan elektroniko berria, Afganistango gerran atxilotuez sistematikoki abusatu zelako salaketan aurrean AEBko armadako langile eta kontratistek batzuetan gozatzen duten zigorgabetasuna agerian jartzen duena. 2004an, armadako Criminal Investigation Command (ingelesezko siglekin, CID) delakoak ikerketa abiatu zuen, AEBko hedabideek plazaratutako artikulua sorta batek argitara atera ostean Gardez base militarrean gertatutako abusuen txosten fidagarriak. CIDek lekuko afganistandarrek eta medikuak aurkitu eta elkarrizketatu zituen, baita Afganistanera bidalitako soldadu eta beterano estatubatuarrek ere, Gardezen nahiz ustezko abusuak izan ziren beste gune batzuetan izandakoak. Afganistandarren kontaketa lazgarriak entzun ostean, CIDeko ikerlariak azkenean sinesgarritzat jo zituzten soldadu estatubatuarren ukazioak. *SWORN STATEMENT* lanak ikertzaileen elkarrizketak jasotzen ditu.

Zazpi metro luze den *RAM* (Ahari-burua, 2016) LED-errotuluak Holzerren esploraziorik berrienetako bat ordezkatzeko, egitura fisikoaren eta hizkuntzaren arteko harremanari dagokiona. Hitzak errotulu horizontalaren aurpegi bakoitzetik igarotzen dira, eta bristada egiten dute aldizka, edo bat-batean itzali, eta inguruko zoruan distira toxikoa eragiten duen ostadar-espektroa bihurtu. Abiadura desberdinek mintzo-patroiak iradokitzen dituzte, Holzerren ustetan “ahotsaren inflexioaren pareko zinetikoa” direnak. Robotikaren laguntzaz, *RAM* lana aurrera eta atzera mugitzen da, eta aldez alde biratzen, ahari-buru militarren mailuketa edo sexua iradokitzeke.

RAM artelanak Anna Świrszczyńska-ren *Budowałam barykadę* (Barrikada eraikitzen) liburuko poema-hautaketa bat hartzen du; 205 aretoan ere agertzen dira haren idatziak. Idazle poloniarra erresistentziari batu zitzaion Bigarren Mundu Gerran zehar, eta partisano zaurituei eta hilaurren zeudenei lagundu zien erizain boluntario gisa Varsoviako Altxamenduan. Hogeita hamar urte geroago idatzi zuen bere esperientziaren inguruan, 1974an 100 poemako zikloa argitaratu zuenean. *Budowałam barykadę* liburuko atal hautatuak Holzerrek Museoaren fatxadarako eta alboko ibairako prestatu dituen proiektioetan ere aurkeztuko dira.

RAM eta *SWORN STATEMENT* jatorri etikoa duten giza hezurren instalazioen alboan egongo dira ikusgai. 1990eko hamarkadaren hasieran ekin zion Holzerrek giza hezurak bere lanean txertatzeari, eta *Lustmord* testuko hitz etsiak grabatuta dituzten zilar koloreko zintekin bilduta aurkezten ditu batzuetan. Zurezko mahai baten gainean antolatuta daude hezurak sarritan, baina Bilborako erakusketarako tokiari erantzuten dion atondura sortu du Holzerrek.

203 aretoa: Marrazkiak

Jenny Holzer. Zera deskribaezina erakusketak marrazki multzo bat biltzen du, *Redaction Paintings* (Zentsura-pinturak) sailari dagozkionak; artistak sorta horretan lanean darrai oraindik ere. Pintura horietako batzuk lerro ordenatuetan zintzilikatuta daude konfigurazio itxuraz ausazkoetan lurrean instalatutako pinturekin kontrastean. 2000ko hamarkadaren hasieratik, gobernu estatubatuarrek, Freedom of Information Act (FOIA) legea tarteko, publiko egin dituen dokumentuak ikertu ditu Holzerrek.

Olio-pintura liho gainean ipinita, artistak dokumentu desklasifikatu baina izugarri zentsuratuak erreproduzitzen ditu, indar armatuei dagozkien idatzi asko barne. Holzerrek baliatutako iturrien artean daude Bushen agintaldi-garaiko materiala, AEBko indar armatuek Afganistanen eta Iraken egindako interbentzioen hasierakoa, eta FBIaren dokumentuak, mehatxu terroristei eta ziberkontraespionazari dagozkionak. Pintura berriak Bilbon egongo dira ikusgai lehen aldiz, eta berriki argitara atera diren gobernuaren dokumentuak agertzen dituzte, lotura dutenak 2016ko presidente-hauteskundeetan Errusiak eragindako interferentziaren inguruan Robert D. Mueller Fiskal Bereziak egindako ikerketekin. Dokumentu bakoitza baliabide digitalen bidez handitu da, eta haren edukia xeheki kalkatu da, testua nahiz zentsura-aztarnak fidel erreproduzitzeko. Koloretako edo metalezko xafiak aplikatzen zaizkio mihise jakin batzuen azalerari, edukia areago nabarmenduz batzuetan eta harengandik urrunduz beste batzuetan: hala, bisitariari irakurtzeko nahiz begiratzeko gonbita luzatzen duten irudiak sortzen dira.

204 aretoa: Akuarelak

Areto honetan ikusgai daude larrutx-paper gainean akuarelaz egindako zirriborroak, zeinak Holzerren *Redaction Paintings* delakoetako lihoetara dokumentu desklasifikatuak transferitzeko erabiltzen ziren. Artistaren hitzetan: “Marrazki jakinak lausotzen ditut haiek grafikoago egiteko, eta gero beste batzuk zirriboratu eta pintatzen ditut. Akuarelak erabaki eta ekintza azkarrak eskatzen ditu bustia bustiaren gaineko efektu onak lortzeko, eta hori mezu elektroniko bat idaztea baina kitzikagarriagoa zait, azken hori baita nire ohiko jarduera. Ez dakit lan hauek Espresionismo Abstraktuari dagozkion haien itxura eta materialengatik, keinu baino ur-kolore gehiago agertzen baitut; hala ere, espero dut azkenerako emaitza adierazkorra lortzen dudala. Isuriak Espresionistatzat jo ditzakegu, eta horrek zoriontsu egingo ninduke”. Akuarelekin ukimenezko enkontrua eskaintzen dute AEBko gobernuaren zentsurak ezkutatutako edukiekin.

202 aretoa: Inspirazio aretoa

“Pentsatu eta ezagutzeko” forma gisa deskribatu izan du Jenny Holzerrek marrazketa. Areto honetan, urtetan zehar Holzer inspiratu edo haren arreta erakarri duten artista gakoak daude: Louise Bourgeois, Paul Thek, Alice Neel eta George Grosz, besteak beste. Horietako batzuk lagun ditu Holzerrek. Ikusgai dauden artelan gehienak artistaren marrazki-bilduma xumetik hartuta daude, baina badira beste gordailu batzuetatik datozenak ere, hala nola, New Yorkeko Paul Thek Estate eta Louise Bourgeois Studio.

Kidetasunak, aurrekariak eta Holzer urtetan arduratu duten gaiak (indarkeria, justizia, edertasuna, maitasuna, boterea eta botere-abusua) tratatzeko modu desberdinak agertzen ditu aretoak.

BIO

Berrogei urteko ibilbidean, Jenny Holzerrek leku publikoetan nahiz nazioarteko erakusketetan aurkeztu ditu bere ideia, argudio eta nahigabe garrantzak; hala nola, 7 World Trade Center-en, Veneziako Bienalean, New Yorkeko eta Bilboko Guggenheim museoetan, Whitney Museum of American Art-en eta Louvre Abu Dhabi-n. Holzerrek Veneziako Bienaleko Leone d'Oro jaso zuen 1990an, Munduko Ekonomia Foroaren Crystal Award saria 1996an eta Amerikako Estatu Batuetako Estatu Sailaren International Medal of Arts saria 2017an. *Honoris causa* doktorea da Williams College, Rhode Island School of Design, The New School eta Smith College unibertsitateetan. New Yorken bizi eta bertan egiten du lan.

DIDAKTIKA

Museoak hainbat euskarri eta programa eskaintzen ditu, bisitariari erakusketako eduki eta kontzeptuetara gerturatzen laguntzeko.

Erakusketa honetan, gune didaktikoak testuinguruan ipiniko du Jenny Holzer, 1980ko hamarkadatik gaur egun arte, bere praktikan zehar sortutako objektuen hautaketa baten bitartez: marrazki goiztiarretatik objektu funtzionaletara, nola diren bitxi grabatuak, mahai-tresnak, galtzetak, kamisetak eta kondoia. Artistaren artxibategitik ateratako ikus-entzunezko materiala izango da kaleko arte eta kolaborazio-proiektu goiztiarren erakusgai, eta esfera publikoan egindako lan-proiektu berriagoen dokumentazioa eskainiko du. Hezkuntza gunean, halaber, artistaren ibilbideari buruzko dokumental baten atalak izango dira.

Erakusketa osatuko duten programa eta jarduerak beheago zerrendatuta daude.

Truismoak eta Saiakera supiztaileak parte-hartzeari zabalik

Truismoak eta Saiakera supiztaileak 1970eko hamarkadaren amaieran eta 1980koaren hasieran idatzi zituen Holzerrek, eta New Yorkeko kaleetan zehar modu anonimoan itsatsi zituen jatorrian. Orain, 205 aretoak poster horiek aurkezten ditu ingelesez, gazteleraz, euskaraz, frantsesez eta alemanez. Holzerrek instalazio horrekin elkar-eraginean aritzeko gonbita luzatuko die Museoko programetako parte-hartzaileei, eta posterretan haien erantzunak idazteko aukera izango dute.

Argibide gehiago Museoaren webgunean martxoaren 22tik aurrera.

Partekatutako hausnarketak

Bisitaldi paregabe hauetan, Museoko profesionalek erakusketaren inguruko informazio eta xehetasun interesgarriak partekatzen dituzte; Fundación Vizcaína Aguirre-ren babesarekin gauzatzen da jarduera.

- Arte arduradunen ikuspegia (martxoak 27)

Petra Joos, Guggenheim Bilbao Museoko arte arduraduna eta erakusketaren komisarioa.

- Funtsezko kontzeptuak (apirilak 3)

Marta Arzak, Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza eta Interpretazio Zuzendariordea

Sormen-esperientziak: Errealitate areagotuari sarrera (maiatzak 11 eta 12)

Jenny Holzerrek baliabide desberdinak erabiltzen ditu, eta punta-puntako teknologia maneiatzen du batzuetan, errealitate areagotua barne. 1990eko hamarkadan, osagai digital garrantzitsua zuten hainbat instalazio ekoitzi zituen, eta duela gutxi, 2017an, eduki birtualeko *ON WAR* aplikazioa sortu zuen *SOFTER* erakusketarako, Oxfordshire-ko Blenheim Palace-n (Erresuma Batua). Bi saioko tailer hau Carlos Seijo-k emango du.

Sormen-esperientziak: Modako hitzak (maiatzak 3 eta 10)

Jenny Holzer *Truismo*etako batzuk serigrafiatu zituen kamiseta eta galtzetetan. Miriam Ocariz artista eta diseinatzaileak gidatutako bi saioko tailer honetan, diseinuak eta hizkuntza tandem bikaina eratuko dute.

Proiektzioa: *About Jenny Holzer* (apirilak 25)

Jenny Holzerri buruz Claudia Müller-ek egindako filma da, artistarekin elkarlan estuan grabatua 10 urtean zehar. 2011an plazaratu zen.

Azaleko irudia

Jenny Holzer

Purple (Morea), 2008

LEDezko 20 errotulu diodo urdin, gorri, berde eta zuriekin

Elementu bakoitza: 148,1 x 13,3 x 14,8 cm

Testua: AEBetako gobernu-dokumentuak

Artistaren eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Photo: Collin LaFleche

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia ikusteko, joan hona: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa-eremua).

Prentsan erabiltzeko irudiak

Jenny Holzer.

Zera deskribaezina

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikiaren bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala. Dagoeneko erabiltzailea bazara, adierazi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta sartu zuzenean irudiak deskargatzeko orrian.

Prentsan erabiltzeko deskarga daitezkeen irudiek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Artelanen izenburuak haien jatorrizko bertsioan erabili beharko dira, ingelesez.
- Erakusketarekin erlazionatutako artikuluetan soilik erabili ahal izango dira.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe.
- Ezin dira erabili azaletan, ezta promozioetan ere, irudien legezko eskubideak dituenak idatzizko baimena eman ezean.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-eremuarekin, telefonoz (+34 944 35 90 08) edo posta elektronikoki bidez (media@guggenheim-bilbao.es).

Jenny Holzer

Hemendik: *Truisms* (Truismoak, 1977–79), 1977

Artistaren eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Argazkia: Jenny Holzer



Jenny Holzer

Hemendik: *Inflammatory Essays* (Saiakera supiztaileak, 1979–82), 1982

Artistaren eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Argazkia: Jenny Holzer



Jenny Holzer

Hemendik: *Inflammatory Essays* (Saiakera supiztaileak, 1979–82), 1983

Artistaren eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Argazkia: Jenny Holzer



Jenny Holzer

Survival: Men don't protect... (Biziraupena: Gizonek ez zaituzte babesten jada...), 1989

Indiako granito gorrizko bakua

43,2 x 106,7 x 45,7 cm

Testua: *Survival*, 1983–85

Artistaren eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Argazkia: Larry Lame



Jenny Holzer

Living: More people will be building hiding places... (Bizitzen: Jende gehiagok eraikiko ditu ezkutalekuak...), 1989

Bethel granito zurizko bankua

43,2 x 91,5 x 45,7 cm

Testua: *Living*, 1980–82

Artistaren eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Argazkia: David Heald



Jenny Holzer

Memorial Bench II: Eye cut by flying glass... (Banku oroigarria II: Kristal hegalariai egindako ebakia begian...), 1996 (xehetasuna)

Indiana Buff kareharrizko bankua

44,1 x 182,9 x 61 cm

Testua: *Erlauf*, 1995

Artistaren eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Argazkia: Erik Sumption



Jenny Holzer

Living: Affluent college-bound students... (Bizitzen: Eroso asko bizitzen ohituta dauden unibertsitateko ikasleak...), 1998


Grafitoa kalko-paper gainean

45,7 x 91,1 cm

Testua: *Living*, 1980–82

Artistaren eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP



Jenny Holzer

Lustmord Table (Sexu-hilketako mahaia), 1994 (xehetasuna)

Giza hezurak, zilar koloreko zintak eta zurezko mahaia

74,3 x 177,8 x 113,7 cm

Sprüth Magers-en eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Argazkia: Ken Adlard



Jenny Holzer

All Fall (Denak erortzen dira), 2012 (xehetasuna)

LEDezko 5 errotulu diodo urdin, berde, gorri eta horiekin

262,8 x 241,5 x 262,8 cm

Testua: AEBetako gobernu-dokumentuak

Artistaren eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Argazkia: Joshua White/JW Pictures



Jenny Holzer

Purple (Morea), 2008

LEDezko 20 errotulu diodo urdin, gorri, berde eta zuriekin


Elementu bakoitza: 148,1 x 13,3 x 14,8 cm

Testua: AEBetako gobernu-dokumentuak

Artistaren eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Photo: Collin LaFleche



Jenny Holzer

Survival (Biziraupena), 1989

LEDezko errotulua diodo gorriekin

13,3 x 138,6 x 7,6 cm

Testua: *Survival*, 1983–85

Sprüth Magers-en eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Argazkia: Erik Sumption



Jenny Holzer

Ram (Ahari-burua), 2016

LEDezko errotulua diodo urdin, berde eta gorriekin

14 x 762 x 14 cm

Testua: "Two Faces the Color of Iron" (Bi aurpegi burdinaren kolorekoak), *Building the Barricade* (Barrikada eraikitzen) liburutik, Piotr Florczyk-ek ingelesera itzulua.

© 2016 Tavern Books. Ludmilla Adamska-Orłowska eta itzultzailearen baimenarekin erabilia.

Artistaren eta Hauser & Wirth-en eskaintza

© 2019 Jenny Holzer, member Artists Rights Society (ARS), NY / VEGAP

Argazkia: Collin LaFleche



Jenny Holzerren erretratua

Argazkia: Nanda Lanfranco

